

AEBek droneekin milaka zibil hil dituztela frogatu dute beren dokumentu ezkutuek



Gudarako droneen teknologian milioika dolarreko inbertsioak egin ostean, "historiako aire kanpaina zehatzena" iragarri zuen AEBetako presidente Barack Obamak. 2014tik gaur arte Pentagonoak bildutako dokumentuak aztertzen bost urte igaro ostean, ordea, ez zela hala izan erakutsi du *New York Times*-eko kazetari Azmat Khanek (argazki txikian).

LANDER ARBELAITS MITXELENA

Gerra-eremuetan harrapatuta gertzen diren milaka zibil hil dituzte AEBek Afganistan, Siria, Irak eta beste herrialde batzuetako gerretan. Horixe ondorioztatu du Azmat Khan kazetariak bi puskatan argitaratutako *The New York Times*-en ikerketan, Pentagonoko barne-dokumentuak eta aire-erasoen

inguruko txostenak aztertzen, eta bizi-rik atera diren dozenaka pertsona elkar-rizketatzen aritu da bost urtez. Lehen parteak izena du *Aire eraso hilgarrietan joera okerrak utzi dituzte agerian Pentagonoaren erregistro ezkutuek*, eta bigarrenak *AEBen aire guden giza kostua*. 2014az geroztik hildako zibilen –asko haurrak– kasu zehatz ugari jasotzen dituzte erreportaje hauek eta jarraian xehe aipatuko ditugu krimen horietako batzuk:

2016eko uztailaren 19an, goizaldeko 03:00etan, AEBetako Operazio Berezien Unitateak bonbardatu egin zuen ustez ISISeko kideak "prestatzen ziren eremua", Siriaren menpeko Kurdistanen. AEBek egun hartan publiko egin zuten 85 gertakari hil zituztela, baina egitan, guda eremutik urrun zeuden etxeak bonbardatu zituzten, non baserritarrak eta beren familiak zeuden babes hartuta, bonbardaketa eta tiroetatik ihesean. 56 eta 212 zibil artean hil zituzten, "familia osoak erraustuz".

2017 hasieran Iraken, AEBen hegazkin militar batek kolore iluneko auto bat begiz jo zuen bidegurutze batean Mosulen, Wadi Hajar auzoan. Bonba auto bat zela ondorioztatu zuten eta eraso egin zioten. Barruan Majid Mahmoud Ahmed, bere emaztea eta bi haurrak –erreportajeak

ez dakar beren izenik– zeuden, borroka eremu batetik ihesean ari ziren herritar-rak. Familia hau eta beste hiru zibil hil zituzten aire eraso hartan.

2015eko azaroan, gizon bat "objektu pisutsu ezezagun bat" arrastaka eramaten ikusi ostean ISISen "borroka posizio defentsibo batera", AEBetako armadak Ramadi hirian eraikin oso bat bota zuten behera eraso batean. Militarrek jaso zuten txosten baten arabera, "altuera txikiko pertsona bat" –haur bat, alegia– hil zen erasoan.

IKERKETARIK GABE: INPUNITATEA

Erreportajeek publiko egin dute Pentagonoaren ezkutukeria zibilen heriotzen aurrean, horrek dakarren inpunitatearekin. Hilketak hauetako bat bera ere ez dute sakon ikertu gerora AEBek, ez inor zigortu ere. Kazetariak idatzi du oso kasu gutxitan egin zirela publiko azterketak, ez duela kasu bakar bat ere aurkitu non irregulartasunen aurrean zigor neurriarik hartu dutenik, guztira dozena bat herritarri bakarrik ordaindu dizkieten kalte-ordainak, nahiz eta eraso hauetatik bizirik irtetea lortu duten zibil askok arreta mediku garestia behar izan, utzi dizkieten ezintasun fisikoengatik. ●